# NAHIZ ETA URTEAK BETE, OSPATU BEHARRIK EZ IZATEA GUSTATUKO LITZAIGUKE.

ARABAKO ELIKAGAIEN BANKUA
BANCO DE ALIMENTOS DE ARABA



2023

TXOSTENA

# 25

URTE


DAGOKIGUN IZAERAREN ARRAZOIA
Ezaugarritzen gaituen kemena

TALDEA
Pertsona engaiatuak

BABESA
Arabako gizartearekin elkarlanean, bere babesa eta laguntza iraunkorra jasoz

BILKETA ERRALDOIA
Azaroaren 24-25ean

BANAKETA
Behar handien dutenei begira

AURRERAKO BIDEA
Asko geratzen zaigu egiteko

ERANSKINAK

# Liluraz eta buru-belarri aritzea



Oroimena iragana berrikustera mugatuko balitz, etorkizuna eraikitzeko duen oinarrizko balioa alferrik galduko litzateke. Horregatik, Arabako Elikagaien Bankuaren Urteko Txostenak izan ziren gertaerak, edota izan zitezkeenak ala izan ez zirenen zerrenda baino, zerbait gehiago izan nahi du, bat-bateko konpromiso eta epe ertainerako asmoen leiho bihurtuz.

2023an 25 urte bete genituen elkartasunaren bidean. 1998an Elikagaien Bankua martxan jarri zuten boluntario haien ilusio eta ardura berbera dugu gaur egun. Gosearen injustizia erradikalaren aurka matxinatu ziren, eta gaur borrokan jarraitzen dugu jateko baliabiderik ez dutenen alde, elikagaiak xahutzeari aurre egitera bultzatzen gaituela. Zentzugabea da ikustea nola botatzen diren edukiontzietara produktu aprobetxagarriak, eta aldi berean bazterkeriaren amildegiko beste pertsona batzuk nola dabiltzan leku horietan janari bila. Harrezkero, eta orain arte, Bankuak elikagaiak behar handieneko pertsonen artean banatzen ditu, enpresetako soberakinetatik, supermerkatuetatik edo dendetako eta merkataritza guneetako kanpainetatik eratorritako guztia, bai janari gisa, bai erosteko dirutan.

Arabako Elikagaien Bankuaren gaur eguneko konpromisoak, boluntarioen jardunbide egokien kodean jasoak, sorreran bultzatutako berberak dira. Horien artetik azpimarratzeko da lehentasunezko arreta merezi dutela gure laguntzaren behar handiena dutenak, hori baita gure erakundearen arrazoia. Horrek barneratzera garamatza jasotako elikagaiak ez direla gureak, administratzaileak besterik ez garelako. Gure presentzia eredugarria izan behar da gizartean, justiziaren eta elkartasunaren lekuko izanez. Ildo horretan, ingurumena errespetatzen lagundu behar dugu, xahutzearen aurka borrokatuz eta birziklatuz.

Elkartasuna da Arabako Elikagaien Bankuaren ekintzaren gakoa. Horrekin batera, azken bost urteetan ezarri diren oinarriak kokatu nahi nituzke, 2019ko “Leiho guztiak zabalik” ekimenetik hasita: boluntariotza behar handiena dutenen eskura bideratzea eta herritarrekiko gardentasuna. 2020an, “Harriak bidean agertzen dira” lelopean, ulertu genuen ahulenengana hurbilduko gaituzten zubiak eraikitzeko zailtasunak aprobetxa genitzakela. 2021ean gakoa “Itxaropena” izan zen, pandemiak ekarri zigun menpekotasunezko oztopoak gaindituz, beharra zuen edozein familia gertutik jarraitu ahal izatera jarri ginelako. ‘Iraunkortasuna’ 2022ko hasierakoa zen, Banku honen sorrerako helburuak lortzen jarraitzeko eta mundua zerbait hobea izaten laguntzeko, eta pertsonek gosea amets txar gisa antzeman dezaten. Azkenik, 2023an “Ilusioz eta gorputz-arimaz aritzea”, behar gaituztenetik beti hurbil, gizarte-bazterketaren graduren bat pairatzen dutenei harrera emateko asmoa.

Azken urteak, nolanahi ere, uste baino testuinguru zailagora eraman gaituzte, maila makroekonomikoan izandako susperraldiak ez baitu islarik izan errenta baxuenen etxeko ekonomian. Gaur egun, Bankuak 1.396 familia artatzen ditu banaketa-taldeen bidez (3.624 heldu eta 129 haur), eta beste 362 pertsona kontsumo-taldeen bidez (jantokiak eta kolektiboak, batik bat). Ematen diren sortak ez dituzte onuradunen beharrak asetzen. Laguntza da; osagarria, ez nahikoa, baina behar-beharrezkoa. Ekarpen horiek Elikagaien Bankuak etengabe hobetu nahi ditu, oinarrizko dieta osasuntsu eta orekatuak behar lukenera hurbiltzeko. 2022an Arabako gizartearen ahaleginak eta eskuzabaltasunak aukera eman zuten helburu horretara hurbiltzeko, baina 2023an atzerapen bat gertatu zen funtsean produktu askoren garestitasunagatik, erosketa egiten dugunean guztiok egiaztatzen dugun bezala. Gure buruari maiz entzuten diogun “ez naiz iristen” Bankura ere zabaldu da, eta horrek produktu batzuk murriztea behartu du, besteak beste, oilasko-haragia, fruitu lehorrak edo kontserbak. Egoera bigarren seihilekoan leundu zen, udaberriko ezohiko kanpainari eta Vital Fundazioaren, Arabako Foru Aldundiaren, Gasteizko Udalaren eta norbanako askoren aparteko ekarpenei esker, baina oraindik ere zailtasunak daude.

Hasi berri dugun 2024. urtean helburu iraunkorrei gehitzen zaie ohiko banaketa-produktuak hobetzeko helburua, baina baita bi urtetik beherako haurren oinarrizko elikadura eta higiene-beharrak % 100ean estaltzea, lehentasuna emanez haientzat bakarrik diren produktuei: potitoak, galletak eta zerealak, bai eta haur-oihalak eta emakumezkoenak.

Bilketa Erraldoiak berriro erakutsi du gizartearen aurpegirik onena: elkartasuna eta eskuzabaltasuna. Eta esker ona bihotz-oroimena denez, Memoria honen bihotzetik eskerrak eman nahi dizkiegu lan hori posible egiten duten guztiei: boluntarioak, erakundeak, enpresak, supermerkatuak… baina, batez ere, emaile guzti-guztiak, beren ahaleginarekin mundu hobe hori aurreratzen baita. Multzo bat osatzen dute, eta horri esker gaur esnatzeko orduan ehunka pertsonak ez diote beren buruari galdetzen ea jatekorik izango duten.

**Daniel Fernandez Conde**

Arabako Elikagaien Bankuko Elkarte-burua

# DAGOKIGUN IZAERAREN ARRAZOIA

**Ezaugarritzen gaituen kemena**

ARABAKO ELIKAGAIEN BANKUA
BANCO DE ALIMENTOS DE ARABA





# Alferrik galtzea saihestea

FAOren arabera, munduan elikagai-ekoizpenaren heren bat alferrik galtzen da, orotara **1,300 milioi tona.**

Bataz beste, etxe bakoitzean **urtean 70 kg** inguru botatzen dira. Euskadin horrela da ia miloi bat etxetan baino gehiago.

Batez ere, ukitu ere egiten ez diren elikagaiak botatzen ditugu. Erosketatik zaborretara zuzenean doazen produktuak % 78a da, eta gainerako % 22a prestatu eta jan gabe geratzen direnak.

*(2023ko otsailean Mikel Dominguez/EITB Mediatik emandako datuak dira)*

# Elikagaiak eta dirua jaso, erosketak egiteko

Azken sei urtetan **11.159.827 kilo** janari bildu ditugu hainbat jatorritatik (nekazaritza eta abeltzaintzaren industria eta supermerkatuen soberakinetatik, bilketa-kanpainak, Europako Funts eta FESBALen programak...), eta dohaintzetatik ateratako diruarekin **1.717.707 kilo** erosi dira.



# Behar handien dutenen artean banatzen

Bost urtetan **31.893 helduk** eta **1.887 adingabek** elikagaiak jaso dituzte. Hortaz, **8.583 familiak** baino gehiagok osatu ahal izan dute elikadura Arabako Elikagaien Bankuaren ekarpenekin.

...... eta helburu horiek lortzeko,

**nola egin dugu lan 2023an?**

# TALDEA

## Pertsona engaiatuak

**25 urte hauetan**
jardun duten boluntario
finko eta aldirikoak

**177**



# GOBIERNU BATZORDEAK

## Zuzendaritza taldea

**Elkarte-buru:**

Daniel Fernández Conde

**Buru-orde:**

Daniel Muñoz Gómez

**Idazkari:**

Eva María Gil De Prado

**Diruzain:**

Jaime Bobadilla Sancha

**Batzorde-kideak:**

Miguel Bengoetxea Romero
Susana Corral Marrodán
Oscar L. Heras,
Natividad Martínez Gª de Vicuña
José Niso Sadans

**Batzorde Iraunkorra**

Miguel Bengoetxea Romero
Jaime Bobadilla Sancha
Daniel Fernández Conde
Daniel Muñoz Gómez

# BOLUNTARIOAK LAN SAILKA:

## Presidentetza Batzordea

Francisco Beltrán Urcelay
Daniel Fernández Conde
Jesús María Garcia Morketxo

## Idazkaritza Saila

Eva Maria Gil de Prado

## Administrazio eta ekonomia saila

### Administrazioa

Lourdes Arambarri Bengoa
Cristina Maestro Pelegrín

### Giza baliabide eta Lan Arriskuak

Dolores Lana Zabala

### Informatika Sistemak

Andoni Zaldúa Iñurritegi

### Kontularitza

Jaime Bobadilla Sancha

## Baliabide saila

### Kanpainen kudeaketak eta Bilketa Erraldoia

Luis Mª Barruso Guilarte
Jesús Mª Ciganda Iriarte
Miguel Ángel Fdz.de Matauco Martínez

### Sentsibilizatze eta zabalkundea

Salvador Aledo Amorós
Andrés Rodeiro Louzao

## Elikagaien saila

### Jakien kudeaketa

Susana Corral Marrodán
Rosario Díaz de Cerio Ruiz de Urra
Patxi Elorza Honrado
Fco. Javier Irisarri Lpz. de Goikoetxea
Yon Maeso Mendizabal
Daniel Muñoz Gómez

### Logistika eta biltegia Garraioa

Andoni Arambarri Uranga
Luis Ignacio Bengoa Guinea
Segundo De la Hera Garcia
Oscar Luis Heras Alzaga
José Miguel Lpz.de Añua García
Eleuteria Martin Andrés
José Antonio Munguía López
José Mª Macario Valencia Arboníes

### Biltegia – 5. Pabiloia

Isidro Bada Hernández
Miguel Bengoetxea Romero
Fortunato Cibrián Castillo

### Biltegia – 6. Pabiloia

Matías Becares Botas
Ángel García Mesanza
Jokine Godoy Cristóbal
Eunate Jz.de Aberasturi Larrea
Ana Murua Isasi
Antonio Navarro Murillo
José Niso Sadans
Angel Ruiz de Azúa Mendivil
Orlando Sanz Ruiz-Carrillo

### Mantentze-lanak

Ricardo Glz..de Zarate Fdz.de Aranguiz
Ramón Rodriguez Merinero

## Elkarteak saila

José Luis Cortazar Ibáñez
Gonzalo Dz. de Espada Fdz. de Monje
J.Andrés Gabilondo Mallaviabarrena
Mª Luisa García de Vicuña Ortueta
Natividad Martínez G. de Vicuña
Eufemia Palacín Vaquero

## Brasil kaleko biltegiaren banaketa taldea

Sagrario Berceal Blanco
Kanza Lharchi
José Antonio Ruiz de Larrea
M.Prudencio Saéz de Castillo Izquierdo

## 2023 urteko bilketa erraildoirako taldeen arduradun koordina-tzaileak

Arce, Mari Carmen
Artetxe, Salva
Baticon, Begoña
Becares, Matias
Beitia, Laura
Camara, Daniel
Casado, Jose Luis
Corral, Susana
Diaz de Argandoña, Antonio
Diaz de Espada, Gonzalo
Diaz de Guereñu, Tomas
Echanove, Merche
Espariz, Luis Alfonso
Gil Ortiz, Lourdes
Gomez, Maite
Grupo Zaporeak
Gubia, Julian
Guzman, Cesar
Izal, Mitxel
Jalon Ruiz de Infante, Ines
Landazabal, Jesus Maria
Lopez de Munain, Felix
Lopez de Munain, Marian
Lourido, Alfonso
Manso Elexalde, Rosa
Martin, Sebas
Martinez, Maria Victoria
Melguizo, Pilar
Nazario, Feliz
Ochoa Ortiz, Maria Asun
Perez de Arrilucea, M. Carmen
Reyes, Juanjo
Rubias, Jaime
Ruiz, Bernardo
Saenz, Jose Maria
Simon, Jose Manuel
Sosoaga, Eduardo
Yeregui, Roberto
Zabala, Manuel

# BABESA

## Arabako gizartearekin elkarlanean, bere babesa eta laguntza iraunkorra jasoz



## Sentsibilizatzen

2023an guztira 969 ikasleri sentsibilizazio-hitzaldiak eman zaizkie 13 ikastetxetan. Lan hori gauzatzeko ikastetxeetan bertan bilketa-kanpaina txikiak sustatu dira. Emaitza gogobetegarria suertatu da, 1.767 € eta 3.433 kilo elikagai bildu bait dira.

Aurreko ikasturteekin alderatuz, Bigarren Hezkuntzako ikastetxe gehiagok parte hartzea lortu da. Sentitzen dugu ekimen hori ezin amaitu izatea ikasleek Jundizko Bankuaren biltegirako bisitarekin. Bikoitza da ezina horren zergatia. Garraio publiko egokirik ez dago eta garraio pribatua prezio garestian. Horregatik, soilik ikastetxeak joan dira.

**Parte hartu zuten ikastetxeak**

Armentia Ikastola; Ekialde Institutua; Francisco Vitoria Institutua; Hogar San Jose Ikastetxea; Inmaculada Ikastetxea; Mendebaldea Institutua; Miguel Unamuno Institutua; Murgiako Institutua; Nclic Ikastetxea; Ntra. Sra. las Mercedes (Merzedariak) Ikastetxea; Sagrado Corazón (Karmelitak) Ikastetxea; Sagrado Corazón (Korazonistak) Ikastetxea; Salburua Ikastetxea: Santa Maria Vitoria (Marianistak) Ikastetxea; Toki Eder Ikastola; Unamunzaga Eskola: Urkide Ikastetxea, Vera Cruz Ikastetxea.

## Albiste-gai izanez

Tokiko komunikabideetan eta Sare Sozialetan erakundearen jardueraz prentsa-oharrak, txostenak eta erreportajeak zabalduz.

Web orri interaktibo bat mantenduz (https://bancoalimentosaraba.org/).

Eduki sozialeko artikuluak (El Rincón solitario) El Correo egunkarian aldizka argitaratuz.

## Erakundeekin hitzarmenak finkatuz

Vital Fundazioa: Erakunde horren aparteko laguntza izan da elikagaien prezioen igoerak eragindako arazoak konpontzeko. Horrez gain, urteko proiektu orokor eta berezietarako etengabeko laguntza ekonomikoa ematen du, hala nola materialak erosteko, sustapen-kanpainetarako eta 2023ko Bilketa Erraldoiaren informazio-kanpainaren antolaketarako.

**Gasteizko Udala:** Hitzarmena handitu du, urteko diru esleipena gehituz. Baita ere, Gizarte Laguntzako Zerbitzuen bidez onuradunen baloratze lanak.

**Eusko Jaurlaritza eta Arabako Foru Aldundia:** Urteko aurrekontuetan izendunen diru-laguntza sartu da. Lehen azaldutako arrazoiengatik eta jakien garestitasunari lotua, Arabako Foru Aldundiak ezohiko diru-sorta eman du.

**Elkarteak:** balizko onuradunak identifikatzeko zerbitzuak dituztenak, Gizarte Laneko profesionalen bitartez. Euren artean:

- Minbiziaren Aurkako Espainiar Elkartea
- AFARABA: Alzheimer dutenen sendiko eta lagunen Elkartea
- Euskadi-Ekuatore arteko Solidaritza Elkartea
- Berakah Programa, CEAR, ADSIS Fundazioa
- Itaka-Eskolapioak Fundazioa, Artziniegako Udalerriak
- Añana, Kanpezu-Arabako Mendialdea, Agurain, Gorbeialdea Kuadrillak
- Laguntza Elkartea (Amurrio)

## Solidaritzazko ekitaldi eta kanpainak sustatuz

Asko dira mota horretako ekimenak. Aipagarri:

- Gurasoak-San Viator Abesbatzaren Kontzertua, eurekin Jesus Iturralde eta Nika Bilchiashvili zirela
- Caixa Fundazioaren "Jakirik gabeko etxerik ez" kanpaina
- "Ama Zuria" jaietan Okerrak blusen kuadrillak
- Eguberrietan Merkatuko jakien dastaketan Solidaritzazko Pintxoa (Vital Fundazioa)
- Comunión herrian "Solidaritzazko Saltxitxa"
- Marca Irratia eta Kiroleroak (Merienda eta Eguberritako Izotz Pista)
- Herrietan sustatutako Bilketa Kanpainak: Gamarra Nagusia - San Mateo parrokia – Grupo Diferenciales lantegiko langileria –San Anton Lagun Elkartea (Amurrio) – Abastos Plazako Wine City – Los Ángeles Skaut Taldea
- "Txorizo Patatak" Txapelketa (Ali) – Eskola Zaharra Elkartea
- Caype Biltegiak (Caype Creativa – Bingo Solidarioa)
- Azkena Rock Festibala

## Elkarte eta erakundeen dohaintzak jasoz

Beste askoren artean:

Maeztu eta Antoñanako Herri Batzarrak, Arabako Abokatuen Elkargoa, San Inazio futbol taldea, Helen Doron Vitoria - Gimnasio Curves Gimnasio Akademia, Neumáticos Michelín, Valle Salado Fundazioa, Marca Irratia, Aldabe Gizarte Etxea, Fanzine Crash Comic, XPO Logistika-Vitoria, IndarBaskonia, Ariznabarra Zahar Egoitza, Eltziegoko San Andres Kofradia, Manuel Iradier mendizale taldea, AN Taldea, Briz Aseguruak, Andamur Zerbitzugunea...

## .... baita, beste behartsuekin eginez

Lesbos Uharteko Errefuxiatuak, 17.439 kilo (kontserbak, haurrentzako produktuak eta pijama termikoak) bidaliz, Zaporeak elkartearen bidez.

## ... eta gure biltegiak ezagutu nahi dutenei harrera eginez.

Ikastetxeetako taldeak, elkarteak... eta erakundeetako ordezkariak, hala nola:

- Gorka Urtaran Agirre, Politika Sozialetarako Foru Diputatua.
- Rafael Jimenez, Cuernavaca-ko (Mexiko) Elikagaien Bankuko Presidentea

# BILKETA ERRALDOIA

## Azaroaren 24-25ean

ARABAKO ELIKAGAIEN BANKUA
ALIMENTOS DE ARABA



# 332.104 euro

## Jasotakoa ez zen aurreikusitakora heldu. Beraz, 2024 urteari aurre egiteko gizarte-elkartasun ikusmira ezohiko bezain seguruak beharko dira.




**Azaroaren amaieran egindako Bilketa Erraldoi Handiak** Bankuaren beharrak ikusarazi eta gizartearen eskuzabaltasunari aldaba-hots emateko balio du, baita urte berriko lehen hilabeteak nolako izan daitezkeen zirriborratzeko. Zirriborro honek oraingoz **baikortasun neurritsu** batera garamatza. Emaitzak aldez aurreko desioen azpitik geratu ziren arren, zorionez, onuradunen kopurua pixka bat gutxituz gero **erakundeak zerbitzuak mantendu eta berehalako eskaerei egoki erantzun ahal izango zaie.** AEB-ari gustatuko litzaioke oinarrizko dieta hobetzea, lehentasunen zerrendan markatutako helburua delako. Baina egungo baliabideekin helmuga zaila aurre-ikusten da.

Jakina, inguruabar horiek giza lan ororen oinarrizko bi printzipiotan eragin behar dute: **iraunkortasuna eta konfiantza.** Biek gidatu dute beti Bankuaren lana, eta horretan jarraituko dute orain eta etorkizunean ere, gizarte-elkartasunak bultzatuta. Boluntarioei, laguntzaileei, erakundeei, fundazioei, enpresei, komunikabideei eta partikularrei esker behartsuenen etorkizuna zertxobait hobea izango da. Bazterketaren amildegiaren ertzean daudenak Bankuarentzat pertsonarik garrantzitsuenak dira. Eguneroko janaria osatzen laguntzea guztion ekarpenekin baino ezin da lortu. Iraunkortasuna eta konfiantza, zirkulua ixten dute beharrak konpontzeko.

Azken urteotan, pandemiaren ondoriozko segurtasuna dela eta, aldatu egin da elikagaiak biltzeko kanpainaren funtzionamendua. Lehen dohaintza gehienak ohiko bilketa-puntuetara elikagaiak zuzenean eramanda egiten ziren. **Berriro ohiko sistemara itzuli da**, hau da, elikagaien dohaintzara, baina ez saltoki guztietan, baita **janari-bonuen erosketa mantenduz** ere.

Ia elikadura-kate guztiek onartu zuten kanpaina, eta **90 denda baino gehiagok** ireki zituzten ateak. **650 boluntario** inguruk, heldu eta gazteen artean, bezeroei arreta eman zieten helburuen berri emanez eta lankidetzan aritzera animatuz. Lan horiek **koordinatzeko** beste 39 pertsona izan ziren.

Bildutako emaitza **332.104 €** izan zen, elikagaiak, bonu aldagarriak eta dirua batuta. **Aurreko urtean baino % 2,35 gehiago.**

Bankuak eskerrak eman nahi dizkie kanpaina babestu duten guztiei: emaileei, supermerkatuei eta komunikabideei, baita aitorpen berezia merkataritza-guneetan herritarrei arreta eman zuten boluntario eta koordinatzaileei.

KONPARAZIO-DATUAK

| | Elikagai kiloak (*) | Bonu aldagarriak | Dirua | **OROTARA** |
|---|---|---|---|---|
| **2021** | | 167,505 € | 69.280 € | **236.785 €** |
| **2022** | 49.409 kg / 87.454 € (1) | 149.038 € | 87.980 € | **324.472 €** |
| **2023** | 44.595 kg / 89.190 € (2) | 127.674 € | 115.240 € | **332.104 €** |

(1) Elikagai-kiloa 1,77 €

(2) Elikagai-kiloa 2 €

# Jakiak biltzen

**25 urte hauetan** bildu eta banatutako jakiak:
**36.400.000 kg**

## Jatorriaren arabera

| | 2021 | | 2022 | | 2023 | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | Kg | % | Kg | % | Kg | % |
| Elkarte, Ikastetxe eta beste taldeen... kanpainak | 48.648 | 2,33 | 43.412 | 2,25 | 46.246 | 2,36 |
| Dohaintza eta bonoen funtsetik Elikagai Bankuaren erosketak | 450.380 | 21,56 | 557.624 | 28,95 | 329.101 | 16,80 |
| Nekazaritzako elikagaien emariak | 1.000.404 | 47,88 | 831.468 | 43,17 | 978.194 | 49,93 |
| Zehaztugabeak | | | | | 1.634 | 0.08 |
| Bilketa Erraldoian eta dendetako kanpainetan lortuak | 1.283(*) | 0,06 | 58.351 | 3,03 | 44.255 | 2.26 |
| Beste Elikagaien Bankuetatik lortuak | 416.480 | 19,93 | 294.838 | 15,31 | 451.325 | 23,04 |
| Fruta eta Barazkien Programatik (Nekazaritza Ministerioa) | 125.070 | 5,99 | 115.839 | 6,01 | 108.433 | 5,53 |
| FESBAL-etik jasoak (Elikagai Bankuen Federazioa) | 47.161 | 2,26 | 24.318 | 1,26 | - | - |
| **OROTARA** | **2.089.424** | **100.00** | **1.925.850** | **100.00** | **1.959.189** | **100** |

(*): Kanpaina honetako dohaintzak elikagaien trukerako erositako Bono bitartez lortu ziren

## Jakien arabera

| | 2021 | | 2022 | | 2023 | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | Kg | % | Kg | % | Kg | % |
| Koipeak, grasak eta gehigarriak | 25.611 | 1,23 | 46,012 | 2,39 | 31.050 | 1,58 |
| Haurren Elikadura (*) | 6.102 | 0,29 | 10.520 | 0,55 | 5.326 | 0,27 |
| Jaki lehorrak (lekaleak, pasta...) | 107.501 | 5,15 | 150.708 | 7.83 | 55.410 | 2,83 |
| Alkoholik gabeko edariak | 449.389 | 21,51 | 318707 | 16,55 | 364.068 | 18,58 |
| Okela eta arraina | | | | | 140.914 | 7,19 |
| Kontserbak | 88.680 | 4,24 | 110.406 | 5.73 | 107.402 | 5,48 |
| Gosariak (ogia, galletak, kakao, zerealak...) | 12.764 | 0,61 | 62.368 | 3,24 | 123.162 | 6,29 |
| Fruta eta barazkiak | 399.504 | 19,12 | 336.365 | 17,47 | 402.567 | 20,55 |
| Higiene eta garbitasuna | 26.448 | 1,27 | 25.696 | 1,33 | 30.883 | 1,58 |
| Esnekiak eta arraultzak | 443.344 | 21,22 | 413.248 | 21,46 | 393.349 | 20,08 |
| Sailkatu gabekoak (supermerkatuan jasotako elikagai freskoak...) | 300,074 | 14,36 | 275.069 | 14,28 | 305.053 | 15,57 |
| **OROTARA** | **2.089.424** | **100,00** | **1.925.850** | **100.00** | **1.959.189** | **100** |

(*) Jaki honen kopuru handi bat "Gosariak" atalean sartua dago

## 2023 urteko egoeraren laburpena

2022 urtea elikadura-dieta osotu batekin itxi zen, gure irizpidearen arabera.

Oinarrizko elikagaien prezioaren igoera nabarmenak (adibidez: arraultzak % 115, dozena bakoitzeko % 0,90€ tik % 1,95€ ra; ekilore-olioa % 100, % 1,10€ tik % 2,20€ ra...) eta beste baldintzatzaile batzuek, hala nola supermerkatuetako hondakinen emarien murrizketak, iragarpen okerrenak baieztatu zituzten. **Elikagaien banaketa nabarmen murriztu behar izan zen.**

Ondorioz, hartutako neurrien artean aipatzeko dira:

- Okela: hileko 3.800 kilo gutxitu zen.
- Fruitu lehorrak: osorik deuseztatuak, pertsona bakoitzak hileko 150 gr.
- Olioa: % 25eko murrizketa
- Ezin izan zen hilero pasta, tomate frijitua eta lekalea eman. Hilero tartekatzen ziren

Zailtasunak izan arren, "haurrentzako menua" eta emakumezkoen higiene produktuak mantentzea lortu da, Arabako Elikagaien Bankuarentzat lehentasunezkoak baitira.

# Diru dohaintzak

**25 urte hauetan**
lortutako dirua
(jatorri desberdinetatik):
**7.600.000 €**




| | 2020 | 2021 | 2022 | 2023 |
|---|---|---|---|---|
| **GUZTIRA** | **717.304 €** | **568.484 €** | **553.192 €** | **688.636 €** |

(1): 2022an eta 2023an bildutako bonu kopuru urriagoa arrazoitu daiteke urte hauetako Bilketa Erraldoitik ere elikagaiak eman zirela, aurreko urteetan ez bezala

(2): Ez dira hemen zenbatzen Eusko Jaurlaritza eta Arabako Foru Aldundiaren emariak, ez eta Gasteizko Udalak Jundiz eta Brasil kaleko pabiloien 20.000 euroko urteko errenta kobratu gabe uzten duena.

## EMARIAK EGITEKO ERAK:

- VISA txartelaz:
  https://bancoalimentosaraba.org/donaciones-web/
- BIZUM bidezko ordainketa, 00025 kodea erabiliz
- Banku Transferentzia kontu hauetara:
  **KUTXABANK:** ES58 2095 3153 6191 1448 4071
  **LABORAL KUTXA:** ES72 3035 0099 7509 9011 1111
  **LA CAIXA:** ES74 2100 1419 0102 0019 2118



DOAINTZA GUZTIAK ZERGA GOI-ARINTZEA DUTE (45 %)

ZIURTAGIRIA HEMEN ESKATU:
https://bancoalimentosaraba.org/donaciones-economicas/

# BANAKETA

## Behar handien dutenei begira

### Nortzuk dira onuradun

- Beharrean direla frogatzen dutenak aldiro jaki multzoa jasotzen dute, eguneroko elikadurarako.
- Hartzailetzat hartzeko hauek ematen dute iritzia edo onargarritasuna: gizarte langile profesionalak, erakunde publikoko profesionalak eta Elikagaien Bankuarekin hitzarmena duten erakunde pribatuak.
- Behar egoeran dirauten bitartean jasotzen dute, behin jarraipeneko azterketa ikuskatu eta balioztatu ostean.

### Nolako banaketa

- **Banaketarako 28 talde laguntzaile.** Bankuak erabakitako familiei egoitzan banatzen diete.
- **Kontsumoko 19 gune.** Egunean kontsumitzeko jakiak jaso eta harrera-leku, zahar egoitza eta jantoki sozialetara eramaten dituzte.
- **Elikagaien Bankuak Brasil kaleko egoitzan** behar larrian direnei zuzenean ematen die jaki sorta. Gerora ematen jarraitzeko lehen aipatutako erakunde laguntzaileetara bideratuak izaten dira.

**25 urte hauetan**
gure harrera
jaso dutenak
**150.000**



# AZKEN HIRU URTETAN ARRETA JASOTAKOEN KOPURUA

| | 2021-2024 Urte tartean | | | 2021 URTEA | | | 2022 URTEA | | | 2023 URTEA | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | Guztira (1) | Anitzak (2) | Adingabe (3) | Guztira | Ezberdinak | Adingabe | Guztira | Ezberdinak | Adingabe | Guztira | Ezberdinak | Adingabe |
| PERTSONAK | 24.744 | 10.967 | 1.623 | 8.266 | 4.966 | 672 | 8.199 | 4.945 | 559 | 8.279 | 5.206 | 392 |
| FAMILIAK | 9.283 | 4.944 | | 2.904 | 1.991 | | 3.088 | 2.112 | | 3.291 | 2.283 | |

(1): Elikagaiak biltzera behin baino gehiagotan joandako helduen kopurua, guztira
(2): Urte bakoitzean arreta jasotako helduak
(3): Urte bakoitzean arreta jasotako adingabeak

## Elikagaien banaketa kontsumo-gunetan, eta presazko ala aldi baterako Brasil kaleko lokaletan

| | 2020 | 2021 | 2022 | 2023 |
|---|---|---|---|---|
| | Pertsonak | Pertsonak | Pertsonak | Pertsonak |
| Kontsumo-gunetan | 707 | 461 | 383 | 391 |
| Brasil kaleko lokaletan | 1.997 | 1.650 | 1.897 | 1.723 |

# ONURADUN KOPURUA
## (2023ko abenduaren 31a arte izena emandakoak)

### PERTSONAK

| Urtea | PERTSONAK | FAMILIAK | HELDUAK | ADINGABEAK | GIZONEZKOAK | EMAKUMEZKOAK |
|---|---|---|---|---|---|---|
| 2023 | 2956 | 1163 | 2845 | 111 | 1383 | 1573 |

### ADINAREN ARABERA

| 0-2 urte artekoak | 3-15 urte artekoak | 16-64 urte artekoak | 65 urtetik gora | GUZTIRA |
|---|---|---|---|---|
| 157 | 860 | 1838 | 101 | **2956** |

### BANAKETA GEOGRAFIKOA
#### ARABAKO KUADRILLEN ARABERA

| Kuadrilla | Pertsonak | Familiak |
|---|---|---|
| GASTEIZ | 2041 | 871 |
| LAUTADA | 450 | 129 |
| AIALA | 299 | 100 |
| GORBEIALDEA | 80 | 37 |
| AÑANA | 41 | 16 |
| GUARDIA -- ARABAKO ERRIOXA | 27 | 6 |
| KANPEZU – MENDIALDEA | 18 | 4 |
| **GUZTIRA** | **2956** | **1163** |

#### GASTEIZ

| Eremua | Pertsonak | Familiak |
|---|---|---|
| HEGO-MENDEBALDEA | 263 | 106 |
| HEGO-EKIALDEA | 174 | 72 |
| IPAR-MENDEBALDEA | 633 | 266 |
| IPAR-EKIALDEA | 206 | 79 |
| EKIALDEA | 463 | 220 |
| ERDIALDEA | 302 | 128 |
| **GUZTIRA** | **2041** | **871** |

# AURRERAKO BIDEA

## Asko geratzen zaigu egiteko

ARABAKO ELIKAGAIEN BANKUA
BANCO DE ALIMENTOS DE ARABA



## Nola igaro zen 2023 urtea.

## Gure lorpen handiena

Urte hasieran erosketa-saskian inflazio handia izan zen, Arabako Elikagaien Bankuaren baliabideak bereziki zigortu zituena, eta lurraldeko onuradunei - lau mila pertsona inguru- ematen zitzaien poltsen edukia egokitzera behartu zuena.

2021eko abendutik **arrautzak % 115 igo ziren, eta patatak % 30**, igoera basatia etxeko edozein ekonomiarentzat, eta larria Elikagaien Bankuarentzat. Batez ere produktu mota hori banaketarako funtsezkoa delako. Prezioen igoerari supermerkatuetako eguneroko bilketa gehitu behar izan zitzaion, aurtengo urtarrilarekin konparatuz % 30 murriztu zelako eta egoera kezkagarria sortu. Hain kezkagarria, ezen janarien banaketari eragin zion.

2023ko hasieran onuradunei emandako poltsaren menuak kilo bat haragi galdu zuen heldu/eta hilabete bakoitzeko, eta nutrizio-osagarrirako 150 gramoko fruitu lehor poltsarik gabe geratu heldu/eta hilabete bakoitzeko. Era berean, % 30 murriztu zen ekilore-olio banaketa, eta hilabetez hilabete txandakatu behar izan ziren pasta eta tomate-kontserbak lekaleekin.

**Urte erdirako 2022ko Bilketa Handiko bonuak kontsumituak zeuden.**

Egoera ikusita Elikagaien Bankuak udaberriko kanpaina berezi bati ekin zion, gizarte osoaren elkartasuna bidez bakarrik aurre egin baitziezaioken arazoari.

Erantzuna oso aldekoa izan zen, eta 2023ko bigarren seihilekorako aurreikuspen txarrak ez ziren erabat bete.

Supermerkatuetako Udaberriko Ezohiko Kanpainaren bilketa hazi egin zen aurreko urtearekin alderatuta; erakundeek (Udalak eta Aldundiak) aparteko laguntzak eman bait zituzten, baita enpresek eta elkarteek. Vital Fundazioak baldintzarik gabeko babesa eskaini zuen, eta ehunka partikularrek dohaintzak eman zituzten, handiagoak edo txikiagoak, une kritikoa gainditu ahal izateko.

**Horri esker, 2023ko azken hilabeteetan helduentzako "oinarrizko menua" deiturikoa mantendu ahal izan da**, apirilean ezinezkotzat jotzen zen hori. Bestalde, haurren eta emakumeen higienerako produktuek ez zuten aldaketarik izan 2022aren aldean.

**Honako hau da 2023ko lorpenik handiena**. Ez gara bereziki asebeteta sentitzen, berrogeita hamar boluntarioek egindako ahaleginen batura izan baita, bakoitzak bere lan-eremuan, krisia gainditzeko ekarpenak lortu duena. Hobetu egin da: lan pertsonalean, antolaketa-sistemetan, produktuak sailkatu eta berrerabiltzeko prozeduretan, kanpoko laguntzak erakartzean, erakundeekiko izapideetan, sentsibilizazioan eta komunikazioan...

Horrez gain, nahiz neurtzeko zaila izan, Ingurumenaren iraunkortasunaz datu esanguratsu bat eman daiteke. Kalkulatu genezake Elikagaien emaitzak, bestela hondakinak izango liratekeenak, Berotegi Efektuko Gasak (BEG) atmosferara isurtzea **2023an** guztira **2.431 tona CO2** ekidin duela. Gainera, aurreko urtean abiatutako ontzi-bilketa eta bereizketa sistema bidez, **9.870 kg kartoi eta 945 kg plastiko** birziklatu eta lehengai baliagarri bilakatzea lortu da.

## Nola egingo diogu aurre 2024ari?

## Zailtasun eta zalantza artean, baina gogotsu, ekimenez eta itxaropentsu

Hasi berri den urterako helburu nagusia 2023aren hasieran desagertutako "Menu hobetua" berreskuratzen saiatzea da, azaldu bezala egoera zaila gertatu zelako. Horrek ekarriko luke dietan hilabete osoan zehar animalia-proteinak (oilasko-haragia) ohikotzat berriro ezartzea, baita oinarrizko elikagaiak ere (pasta, lekalea...). Ez dugu alboratzen kalitateaz eta/edo produktuen kalitateaz beste hobekuntzak egitea, baita bularreko umeei eta adingabeei zuzendutako guztia mantentzea.

Eskuratuko ote da? Erraza ez bada ere, ziur boluntarioen lanarekin eta partikularren, enpresen, fundazioen, elkarteen eta erakunde publikoen laguntzarekin **lortuko dugula.**

# ERANSKINAK



ARABAKO ELIKAGAIEN BANKUA
BANCO DE ALIMENTOS DE ARABA

## 2023ko Diru-kutxa

| ALTXORTEGIA: SARRERAK - GASTUAK 2023 | EURO |
|---|---|
| **Makineria erostea, instalazioak, eta beste** | **20.066** |
| **FUNTZIONAMENDU KOSTUAK** | |
| Alokatze eta kanonak | **11.176** |
| Konponketa eta mantenua | **15.386** |
| Profesionalen zerbitzuak | **6.566** |
| Garraioak | **34.717** |
| Aseguruak | **2.230** |
| Bankuen zerbitzu eta antzekoak | **447** |
| Bilketa Erraldoiaren Komunikazio, Sustapen eta Kostuak | **7.250** |
| Hornidura | **20.320** |
| Beste zerbitzuak | **24.062** |
| Soldata eta lan-sariak | **34.344** |
| Gizarte Segurantzarako enpresaren ekarpena | **11.354** |
| Kaxatik ordaindutako elikagaien erosketak | **123.486** |
| | **311.404** |

| SARRERAK | |
|---|---|
| **Dirulaguntzak eta dohantzak** | |
| Arabako Foru Aldundiaren dirulaguntzak | **40.000** |
| Eusko Jaurlaritzaren dirulaguntzak | **16.736** |
| Udalen dirulaguntzak | **27.900** |
| Fesbal-en dirulaguntzak | **22.460** |
| Norbanakoen dohantzak | **205.093** |
| Enpresa edo beren Fundazioen dohantzak | **82.055** |
| Elkarte, Ikastetxe eta beste taldeen... kanpainak | **31.222** |
| Vital Fundazioa | **69.679** |
| | **495.145** |

| SUPERMERKATUETAKO BONOAK | |
|---|---|
| **Bonoen ihazko funtsa** | **138.720** |
| Bono-elikagai dohantzak Supermerkatuetan | **193.491** |
| Erosketak supermerkatuetan jasotako Bonoen dirutik | **210.261** |
| BONOEN FUNTSA BERRIA | **121.950** |

## 2024ko Aurrekontua

| ALTXORTEGI AURREKONTUA 2024 | EURO |
|---|---|
| Makineria erostea, instalazioak eta beste | **20.450** |
| **FUNTZIONAMENDU KOSTUAK** | |
| Alokatze eta kanonak | **9.360** |
| Konponketa eta mantenua | **16.150** |
| Zerbitzu profesionalak | **8.200** |
| Garraioak | **39.450** |
| Aseguruak | **6.400** |
| Bankuen zerbitzu eta antzekoak | **350** |
| Bilketa Erraldoiaren Komunikazio, Sustapen eta Kostuak | **7.550** |
| Hornidura | **27.500** |
| Beste zerbitzuak | **27.490** |
| Soldata eta lan-sariak | **26.600** |
| Gizarte Segurantzarako enpresaren ekarpena | **10.500** |
| Kaxatik ordaindutako elikagaien erosketak | **220.000** |
| | **420.000** |

| SARRERAK | |
|---|---|
| **Dirulaguntzak eta dohantzak** | **350.000** |
| Arabako Foru Aldundiaren dirulaguntzak | **24.000** |
| Eusko Jaurlaritzaren dirulaguntzak | **16.800** |
| Udalen dirulaguntzak | **32.500** |
| Fesbal-en dirulaguntzak | **6.700** |
| Norbanakoen dohantzak | **151.000** |
| Enpresa edo beren Fundazioen dohantzak | **57.000** |
| Elkarte, Ikastetxe eta beste taldeen... kanpainak | **19.500** |
| Vital Fundazioa | **42.500** |
| | **350.000** |

| SUPERMERKATUETAKO BONOAK | |
|---|---|
| **Bonoen ihazko funtsa** | **121.950** |
| Bono berriak | **160.000** |
| Erosketak Bonoen kontura | **180.000** |
| BONOEN FUNTSA BERRIA | **101.950** |

# Lekukotzak



**IÑIGO URKULLU** LEHENDAKARIA

Zorionak Arabako Elikagaien Bankua zuen 25. urteurrenean! Ez da bat ere erraza horrenbeste urtez lanean egotea eta, are gutxiago, urtez urte hazten jarraitzea.

